

Euskal AEko eraikuntzaren negozio-zifra %13,3 igo da 2022an

Negozio-bolumenaren %27,4 bizitegi-obra berriko eraikingintzari dagokio

2022an, eraikuntzaren sektorearen fakturazioa %13,3 igo zen 2021aren aldean, eta 9.332 milioi eurora iritsi zen Euskal AE osoan, Eustatek landutako datuen arabera.

Zifra hori 2019an lortutako 9.656 milioi euroetatik oso gertu dago. Horrekin batera, eraikuntzaren jardueraren beste adierazle garrantzitsu batzuek, hala nola enpleguak (%4,8 hazi da), lan egindako orduak (%4,5) edo balio erantsi gordinak (%9,8), 2019koen ia marjina berdinetan kokatzen diren balioak erregistratzen dituzte, eta horrek esan nahi du eraikuntzaren sektoreak pandemiaren aurreko dinamismo-mailak berreskuratu dituela.

Halaber, hiru lurraldeek partekatzen dute joera hau, intentsitate desberdinarekin bada ere. Horrela, Bizkaiak, 4.774 milioi euroko negozio-zifra izan du (Euskal AEko guztizkoaren %51,2), hiru lurraldeetako hazkunderik indartsuena, %15,9koa. Gipuzkoak 3.289 milioi euro fakturatzen ditu, erkidego osoaren %35,2, eta 2021ean lortutako diru-sarrerak %11,7 gainditu ditu. Araba, apalago, %8,3 hobetu da, eta 1.268 milioi euroko fakturazioa izan du; lurralde hori Euskal AEko guztizkoaren %13,6 da.

Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Prezio korrontekak (milaka euro). 2021-2022

	2022	2021	Gehikuntza (%)
Landunkopurua NU	63.003	60.115	4,8
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	9.332.356	8.235.401	13,3
Hornidurak	5.099.200	4.433.078	15,0
Kanpo-zerbitzuak	1.119.394	957.662	16,9
Pertsonal gastuak	2.156.161	1.986.984	8,5
Amortizazioetarako zuzkidurak	145.683	141.923	2,6
Emailtza zergak ordaindu aurretik	874.665	754.819	15,9
Eragiketa jarraituetatik ekitaldiaren emailtza	802.585	686.321	16,9
Egindako inbertsioa	193.575	214.920	-9,9

Data 2024ko Apirilaren 30a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren inkesta

Salmenten %13,3ko igoera hori positiboa da establezimenduen enplegu-tamainetan, baina intentsitate desberdinarekin islatzen da horietako bakoitzean. Goiko geruzak, 20 enplegu edo gehiagokoak, salmentak %20,6 handitu ditu. Horren atzetik, soldatarik gabekoen geruzak fakturazioa %10,8 handitu du. Azkenik, 1-19 enpleguako geruza dago, %8,7ko negozio-zifra duena. Igoera horien ondoren, eraikuntzaren sektorean fakturatutako guztizkoaren erdia baino gehiago 1-19 enpleguako geruzari dagokio (%53,2), %39,8 20 enplegu eta gehiagokoei, eta gainerako %7,1 soldatapekorik gabeko establezimenduei.

Enplegua 2019ko zifretara itzuli da; 63 mila pertsonara

2022an, Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko enplegua %4,8 hazi zen 2021etik. Zifra absolutuetan, 2.888 enplegu garbi gehiago daude aurreko urtearen aldean, 63.003.


2020an okupazioak beherakada handia izan zuen – %5,1ekoa –, eta 2000. urtetik lehen aldiz 60 mila enplegutik behera kokatu zuen sektorea (59.963). 2021eko susperraldi ahularen ondoren (60.115), 2022rako 63 mila landunek aurreko hamarkadako zifretara itzularazi zuten sektorea.

Lurraldeka, eta hazkundeari dagokionez, eraikuntzaren sektoreko Bizkaiko enplegua (%5,1) eta, bereziki, Arabakoa (%6,1) dinamikoagoak dira, Gipuzkoa baino (%3,8). 2022an Bizkaia sektoreko enpleguaren %53,2 du, Gipuzkoak %32,8 eta Arabak %14,0.

2022. urte honetan, lurraldeka lan egindako ordu kopuruaren adierazlearen bilakaera enplegurako deskribatutakoaren paraleloa da: erkidego osoan %4,5eko igoerari dagokionez, Araba nabarmentzen da %6,4ko hazkundearekin; Bizkaian, apalagoa, igoera %4,6koa da, eta Gipuzkoak, enpleguarekin gertatzen den bezala, hazkunderik txikiena du, %3,5.

Euskal AEko eraikuntza sektoreko langile okupatuak, jarduera- taldearen arabera. 2022

Kopurua eta ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren inkesta

Enpleguaren erdia baino gehiago – %57 – eraikuntza-obretako eraikinen eta instalazioen akaberen kontzentratzen da

Tamainaren arabera, Eraikuntzaren hiru azpisektore nagusiak honako hauek dira: *Instalazio elektrikoak, iturgintza eta beste instalazio batzuk* (19.186 enplegu), *Eraikinen akabera* (16.665 enplegu) eta *Eraikinen eraikuntza* (11.551 langile), hiruren artean eraikuntzako langileen %75 baino zertxobait gehiago okupatuz. 2022an bilakaera positiboa izan dute guztiek, %6,2 enplegu gehiago *Eraikinen akabera* azpisektorean, %3,4 gehiago Instalazioak azpisektorean eta %2,7ko gehikuntza *Eraikinen eraikuntza* azpisektorean.


Aipatu behar da 2022an eraikuntzaren sektorean lan egiten zuten langileen %11,9 emakumeak zirela. Proportzio hori 2021ekoa (%11,1) baino handiagoa da, eta 2011tik izandako handiena.

Negozio-bolumenaren %27,4 bizitegi-obra berriko eraikingintzak sortzen du

Eraikuntza-enpresen negozio-zifraren banaketari dagokionez, negozio-zifrari egindako ekarpenik handiena *Bizitegi-obra berriko eraikingintza* da, fakturazio osoaren %27,4 hartzen baitu; ondoren, %24,6, negozio-zifraren bostena baino zertxobait gehiago, *Bizitegi-zaharberritzetik* dator. *Bizitegitarako ez den eraikingintza berria* (%8,8) eta *Bizitegitarako ez den zaharberritzea* (%8,6) gehituz gero, *Eraikingintza*, oro har, fakturatutako hamar eurotik ia zazpi esleitzen dira (%69,4).

*Higiezin*en sustapenak (%14,8) eta *Obra zibilak* (%11,8) eta *Eraikuntzarekin zerikusirik ez duten beste jarduera batzuek* (%4) osatzen dute eraikuntza-enpresen negozioaren banaketa ekonomikoa.

Negoio-zifraren banaketa eraikitako ondasun motaren arabera. Euskal AE. 2022



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62